

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



Gure proiektuari buruz emango dugun zerbitzua eskaintzako komunikazio kanal nagusiak sare sozialak izango dira, eta haien bidez informazioa zabaltzen eta gure proiektua ezagutzera ematen saiatuko gara. Sare sozialak izango dute gure estrategian garrantzi handiena, bai gure zerbitzuen berri emateko bai gure jarduerak sustatzeko. Horien artean, saltzeko kolore biziak jarriko dizkiegu gure produktuei eta gure sare sozialeko kontua ere ondo apainduko dugu bezeroei hasieratik atentzioa emateko. Saltzeko sare sozialetatik erosteko aukera izango dute baina gure dendara etortzeko ahalmena izango dute eta entregatzeko orduan etxera bidaltzeko aukera izango dute edo bestela gure dendara etorri eta beraien produktua hartzeko aukera izango dute.

Hasteko, internet eta sare sozialak erabiliko ditugu interesatuta dauden pertsonekin harremanetan jartzeko. Hauek erabiliz, gure proiektuari buruzko berezitasunak partekatuko ditugu eta baita gure ekintzak eta proposamenak ere. Nahiz eta beste komunikazio bide batzuk, hala nola aldizkariak, irratia edo telebista, kontuan hartu batez ere, sare sozialetako plataformak izango dira gure komunikazio estrategia nagusiak; hain zuzen ere, instagram, Tik Tok eta antzekoak. Sare sozialen indarra ikusita, gure publizitate eta promozio guztia bertan bideratzea da gure helburua.

Bestalde, influencer-en laguntzaz gure kanpainak bideratuko ditugu. Blogak, lehiaketak eta zozketak erabiliko ditugu gure mezuak zabaltzeko eta erakargarriagoak egiteko. Mezua argia eta zuzena izango da: gure proiektuaren berri ematea eta elkarrekin lan eginez, Aita mari itsasontziak erabiltzen dituen txalekoei bigarren bizitza bat ematea, ingurumena zainduz.

Jarraian, arropa ekoizteko hainbat kolaborazio prestatu ditugu. Hauen laguntzaz, diseinua, ekoizpena eta banaketa administratuko ditugu. Honetaz aparte, ordaintzeaz eta produktuaren ekarpena emateaz arduratuko gara.

Era berean, Gipuzkoako herri batzuetako garraio enpresekin kolaboratuko dugu bigarren eskuko dendetara edo denda ekologikoetara gure produktua edo mezua iritsi daitezen eta gurekin kontaktuan jarri daitezen.

Momentuan, online bidez salduko ditugu gure produktuak baina pop up- ek ere egitea pentsatu dugu; Hau da, beste denda batzuekin kolaboratu noizean behin gure produktuan beraien dendetan saltzeko.